

URTEKO HOGEITA BATGARRREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Leinuak Jainko bakarrari leial daude*)

Josueren liburutik 24, 1-2.15-17.18b

- 1** Josuek Izraelgo leinu guziak bildu zituen Zikemen; gero deitu zituen Izraelgo zahar, buruzagi, juje eta idazlariak: elkarrekin Jaunaren aitzinean agertu ziren.
- 2** Josuek orduan, herri osoari erran zion:
- 15** “ Jaunaren zerbitzatzea gaizki iduri bazaitzue, gaur zuek hauta nor zerbitza: zuen arbasoek Eufrates ibaiaz bestaldean zerbitzatu jainkoak, ala Amortarren jainkoak, orai bizi zirezten herrialdeko jendearenak. Nik eta nere etxeok Jauna zerbitzatuko dugu.”
- 16** Herriak ihardetsi zion: “Urrun guganik Jaunaren uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu gure Jainkoa.
- 17** Jaunak atera gaitu gu eta gure arbasoak Egiptotik, esklabo etxetik. Gure begiz ikusi ditugu hark egin dituen mirari handiak; hark zaindu gaitu egin dugun bide guzian barna, iragan ditugun herri guzietan.
- 18** Guk ere, Jauna zerbitzatuko dugu, hura baitugu gure Jainkoa.”

Josueren egintzak ez ditugu ardura irakurtzen, alta haren izena, Jalgitzan kondatu gertakarian, ezagutua zen, Moisen adixkidea zelakotz. Betidanik, Jainkoari eta Moisi leial egon zen, eta hil aitzin, Moisek bere ondoko izendatu zuen : « *Gero Moisek dei egin eta israeldar guzien aitzinean erran zion : « Ukan indar eta kuraia ! Zuk sarraraziko duzu herria arbasoeri zin eginez Jaunak hitzeman lurraldean, eta zuk banatuko lurraldea ondareztat. Jauna bera ibiliko zauzu aitzinean eta zurekin ukanen duzu ; ez zaitu zuharen ber utziko. Ez beldur izan ! Ez izi ! »* Beraz, Josuek ukan zuen israledarrak Lur Sainduan sarrarazteko ohorea. Josueren liburuak ditu kondatzen lehenbiziko gertakariak, israeldarrak Kanaan lurraldean sartu zirelarik.

Bigarren izen aipatu bat : Zikem. Izen hori ezagutzen dugu, Testamendu Berrian, Jondoni Joaniren Ebanjelioan, Jesusek Samaritar emaztearekin buruz-buru egin zuelarik. (Zikem oraiko Naplouse). Liburu Sainduan kondatua da Abrahamek eta Jakobek aldare bat han eraiki zutela, eta Josep, Jakobek semea, han izan zela ehortzia. Gero, erresuma bi parte jarri zelarik Salomonen ondotik, Zikem, Iparraldeko hiri nagusia izan zen. Bainan Zikem-en handitasuna ez da bakarrik hortarik heldu. Jakobek, bere ibilaldietan erabaki handi bat hartu zuen. Bere familiari erran zion jainko faltsuak bazterrerat utzi behar zituela, eta heien itxurak lurpean sartu zituen. Eta huna irakurgai huntan : Josuek Izraeleko leinu guziak zikemen biltzen dituela.

Nork, noiz, eta norendako izkiriatura izan zen testo hau? Ez dakigu, nehork ez duelakotz kondatu israeldarren historia Kanaan lurraldean sartu zirelarik. Liburu Sainduak ez du kondatzen historia, guk, oraiko gisara konda bagineza bezala, ez, Liburu Sainduak mezu teologiko bat helarazi nahi dauku. Josuek erran nahi du: « *Jainko Jaunak du salbatzen* ». Hemen ikusten dugu Josue salbatzailea dela, herriaren batasuna egiten duela eta haren buruzagi jartzen : « *Nik eta ene etxeok Jauna zerbitzatu nahi dugu* » eta besteak gomitatzen ditu harek bezala egitera.

Jainkoak zer egin zuen herriarentzat, xeheki aipatzen du Abrahametik haste eta Lur Hitzemanean sartzeraino. Gero, ahoan bilorik gabe, erran zioten: « *Gaur zuek hauta nor zerbitza: zuen arbasoek Eufrates ibaiaz bestaldean zerbitzatu jainkoak edo Amortarren jainkoak... Nik eta nere etxeok Jauna zerbitzatuko dugu.* »

Irakurgai huntan berriz eta berriz erraiten du Zikemen bildua den populuari, jadanik heien aiteri errana: « *Kasu! Ez engana zuen buruak, ez zaitezela bazter Jaunarenganik, jainko arrotzak adoratzu eta heien aitzinean ahuspekatuz...* » Badakigu nola populua tentatua izan zen, erregeen denboran Baal jainko faltsuak eta berantxago Babiloneko hirian, Eufrates bestaldeko jainkoetat. Horra zendako herriak ihardesten dion: « *Urrun guganik Jaunaren uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu gure Jainkoa.* »

Salmoa 33

*Leloa: Goza ta beha zoin den gozoa
 Zoin den maitea gure Jainkoa!*

**Jaunari beti esker emaiten nagokio,
Hari nik beti laudorio.
Jaunaren baitan arima kantuz banabila:
Bihotz apalak pitz ditela.**

**Dena begi da Jauna zuzenen zaintzen ari,
Dena beharri oihueri.
Gaixtagineri Jaunak hasarrez begiratzen,
Heien izena noiz nola ken.**

**Zuzenek oihu eta Jainkoak entzun ditu,
Hersturetarik berak hartu.
Bihotz errautsi apaldueri hurbil Jauna:
Zaintzen du zaintzen apal dena.**

**Bere gaizkiak hilen du hilen gaixtagina,
Orentzat duen herrak jana.
Bere gizonen zaintzale hor da hor Jainkoa:
Hari dagona ez da joa**

Salmo hau esker onezkoa da ; esker onezko hitzak nun-nahi aurkitzen ditugu : Jainkoaren beharra dutenen hitzak dira. Salmo hau kantatzen duen pobrea, Izrael da : « *Dohakabeak dei egin dio, Jaunak entzun, Hersturarik ez dut, hura lagun* ». Bere buruaz da mintzo, baina salmo hunek mugak zabaltzera gomitatzen du. Erranez : « *Dohakabeak dei egin dio* » edozoinen oihua, edozoin lekutan denaren oihua da. Izraelek bere eginbidea aurkitzen du, bi bidetako eginbidea:

Lehenik, munduko herri guzieren konfiantza erakusten duen herria izan behar du. Fedea, Jainkoa eta bere herriaren arteko elkarrizketa bat agertzen da: gizakiak Jainkoari buruz bere deiarra oihukatzen du. Jainkoak entzuten du eta askatzen. Gizakia berriz mintzo da, eskertzeko. Otoitzaren bi alderdiak dira : galdatu eta gero eskertu. Lehenik galdea eta Jainkoaren erantzuna: « *Jaunaren bila nindoan eta huna Jauna* »...Eta ondotik eskertzea: « *Denek batean gorets dezagun Jainko Jauna eta goraiipa Jaun izena.* »

Izraelen bigarren eginbidea da, Jainkoaren egintzen laguntzaile izaitea, Moisen eta Josueren pare. Jaunaren xedearen obratzaile izan ziren : herria libratu eta Lur Hitzemanean sarrarazi zuten. Gisa berean, dohakabeeri laguntza ekartzea eta Jainkoaren urrikalmendua erakustea da Izraelen eginbidea.

Bainan Jainkoa ez da sorgin-makil bat, atsegabe eta pairamen guzieren baztertzeko. Basamortuan, Moisen ondotik edo Kanaan herrian Josueren ondotik, jendeak ez dira kezka guzietarik begiratuak izan. Bainan Jainkoa berekin zuten trabak eta behaztopatzeak garaitzeko. San Luken ebanjelioak gauza bera erraiten dauku : « *Eska eta emanen dauzue Jainkoak; bila, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue. Zeren eskatzen duenak ukaiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaltzen baitzaio. Ba ote da zuen artean aitarik, semeak arraina eskatu eta arrainaren orde sugea emanen dionik? Edo arrultzea eskatu eta harrulia emanen dionik? Beraz, zuek, zirezten gaixtoek, zuen haurreri gauza onen*

emaiten baldin badakizue, zenbatez gehiago Aita Zerukoak emanen diote Izpiritu saindua, eskatzen dioteneri. »

Bigarren irakurgaia

(Kristo Elizaren “senarra” denaren mixterio handia)

Jondoni Paulok Efesako girixtinoeri 5, 21-32

- Haurrideak,**
- 21 izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen errespetuagatik:**
- 22 emazteak senarraren menpeko, Jesus Jaunaren menpeko bezala,**
- 23 senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala,**
- bere gorputz horren Salbatzailea delarik;**
- 24 Eliza Kristoren menpeko den bezala,**
- emazteak ere senarraren menpeko izan daitezela denetan.**
- 25 Senarrak, maita zuen emaztea,**
- Kristok Eliza maitatu eta haren alde bere burua eman duen bezala.**
- 26 Hola saindu egin nahi zuen,**
- bataioko urez eta biziaren hitzaz garbituz.**
- 27 Beretzat prestatu nahi zuen Eliza, distiratsua,**
- zikinik eta zimurrik edo deus holakorik gabea, saindu eta garbia.**
- 28 Gisa berean, senarrek ere beren gorputza bezala**
- maitatu behar dute beren emaztea.**
- Emaztea maite duenak bere burua maite du.**
- 29 Nehork ez du bere gorputza hastio;**
- aitzitik hazten du eta artatzen.**
- Berdin Kristok Eliza,**
- 30 gu haren gorputzeko membro baigira.**
- Liburu Sainduak dion bezala:**
- 31 Horrengatik gizonak bere aitamak utziko ditu,**
- eta emazteari elkartuko zaio,**
- eta biak bat izanen dira.**
- 32 Handia da mixterio hau,**
- eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.**

Jondoni Paulok aipatzen du senar-emazteen arteko amodioaren edertasuna aipatzen du. “Erran Zaharrak” Liburuan, jadanik goraiapatua zen elkartasun hori zoin den ederra : « *Badira hiru gauza gairiditzen nautenak, eta laugarren bat konprenitzen ez dutana: arranoaren bidea ortzian, sugearen bidea harrokan, ontziaren bidea itsaso zabalean, eta zerk deraman gizona emaztearen ganat.*” Arranoa, hoin pizua, nola dago airean ? Sugea zangorik gabe, nola ibiltzen da ? Itsas ontzia, nola ez da hondatzen? Gizona eta emaztearen artean sortzen den gutziak, nola irauten du ? Munduko olerki guziek mixterio horiek ausnartu dituzte.

Liburu Sainduak erraiten dauku gizakiaren amodioa Jainkoaren amodioaren idurikoa dela eta ez dela hari johan duenik: « *Jainkoak, beraz, bere iduriko kreatu zuen jendea, Jainkoaren idurira kreatu zuen, ar eta eme kreatu zituen.* » Iduri horrek erakustera emaiten dauku ez dela sexualitatearentzat gauza ederragorik asmatzen ahal. Kantarik Ederrenak dio : « *Zein ederra ziren, ene bihotzekoa, zein ederra! Guziz ederra zira ene bihotzekoa eta hutsik gabea!*» Juduek badakite hitz horiek Jainkoarenak direla bakarrik, gizadiarentzat erranak.

Zorigaitzez espos zenbaitek atzipatzen dute beren laguna, eta orduan zer erran Jainkoari buruz hain guti itzulia den gizadi osoaz ? Liburu Sainduak, gure leialtasuna ez izanik ere egiazkoa, ez dauku etsimenik emaiten. Profetek larderiartzen dute idorki espos desleiala, jakinaraztendiola

halere, barkamendua ukanen duela: « *Mutiko gazteak neskatxa emaztetzat hartzen duen bezala, zure eraikitzaileak emaztetzat hartuko zaitu; senarra emaztearekin gozaten den bezala, berdin gozatuko da Jainkoa zurekin.* » Iduri luke emaztegaia ez bada bera zuzentzen, Jainkoa bera bitarteko jarriko dela emaztegaiaren partez: « *Bozkariotan nago Jaunagatik, alai dut arima neure Jainkoagatik, bere salbamenduz jantzi bainau, garaipenezko soinekoez estali, senargaia bezala naiz, bitxi ederrez apaintzen den andregai bezala.* »

Testamendu Berrian, Jainkoa behin-betiko asmoaz mintzo delarik, ezteietako hitzak erabiltzen ditu: « *Hiri saildua, Jerusalem berria, ikusi nuen jausten zerutik, Jainkoaganik, ezkonberria bere senarrarentzat bezala apaindua.* » Paulok berriz eta berriz erraiten dauku batasuna Jainkoaren eta gizadiaren artean obratzen dela, eta Eliza ez dela bakarrik irudia, bainan hazia. Hemen bi erakapen baditugu: lehenik, gure amodioak ezin ederragoak izanik ere eta nekeak, Jesu Kristorekin egiten direla; bigarrena, senar-emazteen amodioak, Kristoren amodioak bere Elizarentzat eta Jainkoarenak gizadiarentzat bezala, behar lukela dirdiratu.

Paulok, senar-emazteeri emaiten dituelarik kontseiluak gogoan hartuz Kristoren mixterioa, erraiten du: « *Izan zaitezte elgarren menpeko, Kristori diozuen errespetuagatik.* » Kristok Elizarendako egin duena, senarrak egin dezala emazteari goxotasunean: « *Bozkaria gaitezen eta egin besta, eman diezogun aintza, zeren horra bildotsaren ezteiak. Apaindurik dago haren emaztegaia, jauntzi zoragarria eman zaio.* » Biziaren emaiteko ere prest izan dadila : « *Nehork ez du maitasun handiagorik bizia bere adixkidentzat emaiten duenak baino.* » Horra Jesu Kristok senar-emazteri emaiten dioten etsenplua.

Lerro hauiek erakapen bat emaiten daukute, Kristok eta Elizak batasunean bizi behar dutela, hori baita hazia, Jainkoaren eta gizadiaren artean: « *Kristok Eliza maitatu eta haren alde bere burua eman du.* » Gure Liturgiak erraiten daukun bezala: Hunen bitartez, Hunekin eta Hunetan., denak Jainkoaren ganik heldu dira.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

**Zuk erran hitzak dire beti, bai izpiritu eta bizi.
Betiereko bizikoak ditutzu, Jauna, zure hitzak.**

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 6, 60-69

**Jesusek Kafarnaumeko zinagogan errana zuen:
“Nere haragia jaten eta nere odola edaten duenak
betiereko bizia badu.”**

- 60 Jesus hola mintzo entzun,
eta haren dizipuluetarik ainitzek erran zuten:
“ Solas hori gogorra da : nork entzun dezake?”**
- 61 Dizipuluak marmarika ari zirela oharturik bere baitan,
Jesusek erran zioten:
“ Ezin onartua iduritzen zaitzue hori?”**
- 62 Eta Gizonaren Semea lehen zagon tokirat igaiten
ikusten bazinute?...**
- 63 Izpiritua da bizi-emaile, haragia ez da deusetarako.
Nik erran dauzkitzuetan hitzak izpiritu eta bizi dira.**
- 64 Bainan badira zuen artean sinesten ez dutenak.”
Alabainan, Jesusek hastetik bazakien
zein ziren sinesten ez zutenak, eta nork salduko zuen.**
- 65 Eta erran zuen gainera:**

- “ Horregatik erran dautzuet ezin dela nehor nereganat etor, Aitak hori emaiten ez badio.”**
- 66 Orduetik, haren dizipuluetarik ainitzek gibelerat egin zuten, eta harekin ibiltzea utzi.**
- 67 Orduan, Jesusek Hamabieri erran zioten: “ Eta zuek ez duzue joan nahi?”**
- 68 Simun Petrik ihardetsi zion: “ Jauna, norenganat joan gintezke? Zuk ditutzu betiereko biziaren hitzak.**
- 69 Eta guk sinesten dugu, eta badakigu zu zirela Jainkoaren Saindua.”**

Erabakiaren tenorea jina zen, Josuek herria Lur Saindurat ereman zuelarik, Izraeldarrek behar ukan zuten hautatu zoin Jainko xerbitxatuko zuten. Hemen ber gisan, Jesusen entzuleek behar dute erabaki, segituko duten ala ez.

Errepostua desberdina izan zen : « *Orduetik, ainitzek gibelerat egin zuten eta harekin ibiltzea utzi.* » Bainan Petrik erran zuen : « *Jauna, norenganat joan gintezke? Zuk ditutzu betiereko biziaren hitzak.* » Joanik, xehetasun hau emaiten dauku, gertakari hori kafarnaumen iragan zela. Alta Bazkoko mixterioa Jerusalemen gertatu zen, bainan Kafarnaum Galileako hirian, lehenik agertua izan zen. Pasioniaz mintzo zen Joani: kurutzean gertatu zen bezala, ainitzek gibelerat egin zuten eta bestek hautatu zuten haren segitzea. Ogien ugaltzean baziren 5000 jende eta orai, hetarik hamabi gelditzen dira bakarrik. Jesusek galdera hau egin zioten: « *Eta zuek ez duzue joan nahi ?* »

Hitz bera, bi solasetan : « *joan ziren* ». Petrik erran zuen : « *Norenganat joan gintezke ?* » Fedea, bide bat da, eta behar dugu utzi gure burua bide horren segitzerat: « *Horregatik erran dauzuet ezin dela nehor nereganat etor, Aitak hori emaiten ez badio.* » Irakurtzen badugu Joaniren Ebanjelioak ardura erabiltzen du *eman* hitza : Aitak emaiten du Semea, Semeak emaiten du bere bizia; bere haragia eta bere odola emaiten dauzkigu. Samaritar emazteari, Jesusek erran ziona, emaita horren bilduma da :

« *Bazinaki Jainkoak zer eman dezakeen!* »

Azken emaitza: Izpirituarena. Horrek ditu sarrarazten fededunak mixterioan : « *Haragiak* (erran nahi baita gizakiak bakarrik) *deus ez dezake egin... Izpiritua da bizi-emaile .* » Berantago, azken apairuan egin zuen predikuan, klarki mintzatu zitzaizoten. Hemen, Kafarnaum hirian ez zen oraino tenorea Izpirituaren dohaina argiarazteko. Jerusalemen egin beharra ote zen ? « *Laguntzailea, Aitarengatik den Izpiritua, igorriko dauzuet Aitaren ondotik. Etorriko denean, harek lekukotasun emanen du nere alde. Eta zuek ere lekukotasun emanen dautazue, hastetik nerekin baitzirezte.* »

Petrik asmatzen zituen jadanik horiek guziak erraiten zuelarik: « *Jauna, norenganat joan gintezke? Zuk ditutzu betiereko biziaren hitzak. Eta guk sinesten dugu, eta badakigu zu zirela Jainkoaren Saindua.* » Berantago, entzun zuelarik Kafarnaumeko predikua, gogoetak egin zituen eta Jesusek Pasionea eta piztea jasan zituelarik, orduan, sinetsi zuen zinez, Jesus gizon egina, Jainko zela « *Jainkoaren Saindua* ».